

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 346/2024 Erabakia, ekainaren 4koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan 2023-2024 kanpainan eskola kirola garatzeko dirulaguntza lerro baten deialdia

Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuen otsailaren 22ko Gobernu Kontseiluaren 9/2022 Foru Dekretuaren arabera, Kirol Zerbitzuari dagokio eskola-kiroleko programen garapena sustatzea, ikastetxeekin, klubekin, kirol-elkarteekin, Arabako kirol-federazioekin eta gainerako kirol-eragileekin lankidetzan.

Horregatik, zerbitzu honek 2023-2024 kanpainan eskola-kiroleko programan parte hartzeagatik sortutako erakundeen gastuak finantzatzen lagundu nahi du. Horretarako, dirulaguntzen deialdia onartu behar da.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. 2023-2024 kanpainan Arabako Lurralde Historikoan eskola-kirolaren programa garatzeko dirulaguntzen deialdia onartzea, gehienez ere 500.000,00 euroko zuzkidurarekin. Deialdi hori Foru Gobernuaren Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko da (azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.). Dekretu horrek Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko oinarri arautzaile orokorrak onartu zituen, bai eta horien ondorengo modifikazioak ere. Halaber, ebazpen honen I. eranskinean xedatutakoa ere onartuko da.

Bigarrena. Onartutako titulazioen aurkibideari buruzko II. eranskina onartu da.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontu 2024ra luzatutako aurrekontu partida honen kontura egingo da: 70201. G/341700/48100701 "Eskola-Kirola".

Laugarrena. Organo eskudunak, balorazio batzordeak proposatuta, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere lau hilabeteko epean. Gehieneko epea igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute erakunde interesdunek.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta horrek jakinarazpenaren ondorioak izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko

auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, administrazioarekiko auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 4a

Kultura eta Kirol saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

I. eranskina

Dirulaguntza deialdia, Arabako Lurralde Historikoan 2023-2024 kanpainan eskola kirola garatzeko

1. artikulua. Xedea, helburua eta emateko prozedura

Deialdiaren xedea da eskola kiroleko programan parte hartzeak erakundeetan eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, 2023-2024 kanpainan.

Dirulaguntza hauen helburua da ikastetxeek eta irabazteko xederik gabeko erakundeek Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programan parte har dezaten sustatzea.

Dirulaguntza deialdi hau norgehiagoka bidez egingo da.

2. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ez da izango, inolaz ere, 500.000,00 eurotik gorakoa; diru zenbatekoa, nolahi ere, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuko 70201. G/341700/48100701 "Eskola kirola" partidari egotziko zaio.

3. artikulua. Elkarte eta/edo erakunde onuradunak eta baztertuak

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte 2023-2024ko eskola kiroleko kanpainan izena emanda dauden eta egoitza soziala edo ordezkari Araban edo Trebiñuko enklabean duten erakundeek, toki erakundeek izan ezik.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

a) Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian eta haren osteko aldaketetan jasotzen diren baztertze egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek (ALHAOren 134. zenbakian argitaratua, azaroaren 20an) Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen.

b) Inskribatutako eta parte hartzen duten erakundeetako taldeak, baldin eta toki erakundeek osorik finantzatutako eta 2023-2024 ikasturteko udal programan eskaintzen diren jarduerak egiten badituzte.

c) Eskola kirolerako izena emateko aplikazio informatikoan, bosgarren apartatuan zehaztutako egunean (2024ko apirilaren 4an), edozein arrazoi edo egoerarengatik baliozkotu gabe dauden taldeak.

d) Eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan eta, ordezeko moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legean jasotako hutsegite oso larriren bat egiteagatik zehatutako erakundeak.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programak

Diruz laguntzeko modukotzat jotzen da 2023-2024ko eskola kiroleko programan parte hartzea hastapeneko jardueretan, kirol eta kultura jardueretan eta partaidetza ibilbideko lehiaketetan, bai eta errendimendu ibilbideko lehiaketetan ere (salbu eta hastapeneko unitate edo ikastaroetan).

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Ez da eskaerarik aurkeztu beharko, eskaerak 2023-2024ko eskola kiroleko kanpainan izena emandako erakunde eta parte hartzaileen (taldeak) inskripzioei dagozkiela ulertzen delako, eta haietan jasotako eta Kirol Zerbitzuak baliozkotutako datuen arabera zehaztuko dira.

Dirulaguntzak jasoko dituen datuak 2024ko apirilaren 4an eskola kirolean izena emateko aplikazio informatikotik aterako dira.

6. artikulua. Eskatutako dokumentazioa

Agiri osagarriak aurkeztu beharko dira soilik baldin eta erakundeak alderdi hauek balioestea nahi badu:

a) Desgaitasuna edo premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko teknikariak izatea. Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Erakundearen ziurtagiria, honako hauek adierazten dituena:

- Erakundearen identifikazio zenbakia, IFZ eta izena.
- Taldearen identifikazio zenbakia, izena eta kirol modalitatea.
- Laguntza monitorearen identifikazio zenbakia eta izen-abizenak.
- Hezkuntza premia bereziak dituen kirolariaren identifikazio zenbakia.

– Daukan desgaitasunaren ziurtagiri ofiziala edo Hezkuntza Sailaren Berritzeguneko ziurtagiria, hezkuntza arloan laguntza behar duela egiaztatzen duena.

b) Kirolean berdintasuna, euskara eta ekitatea sustatzeko konpromisoa. Honako hauek egiaztatzen dituzten agiriak erantsi beharko dira:

– Hainbat urtetarako plana.

– 2023an edo 2023-2024 denboraldian egindako ekintzak eta lortutako emaitzak jasotzen dituen planaren memoria.

Euskara sustatzeko konpromisoaren kasuan, erakundearen euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri baten bidez ere egiaztatu ahal izango da (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari).

c) Kirolean indarkeria prebenitzeko konpromisoa. Kasuaren arabera, honako hauek erantsi beharko dira:

– Kirol lehiaketetan indarkeria prebenitzeko eta kirol legea bultzatzeko ekintzak deskribatzen dituen proiektua/memoria, eta gauzatzen direla egiaztatzeko dokumentazio grafikoa, fotografikoa edo ikus-entzunezkoa (programak, iragarki kartelak, liburuxkak, argazkiak, bideoak edo antzekoak).

– 2023-2024 ikasturtean prestakuntza hauetakoren bat gainditu duten erakundeko pertsonen ziurtagiria:

- “Eskola kirolean indarkeria prebenitzea, diziplina anitzeko begirada (UHUN)”
- “Indarkeriaren prebentzioa kirolean” (Kirol Eskola).

Agiriak Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa dagoen berariazko izapidearen bidez aurkeztu behar dira:

Arlo pertsonalean, espediente zehatzera sartuz: https://e-s.araba.eus/wps/portal/iniciarSesion_eu.

Horretarako, aldez aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute.

Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakundeak berariaz horren aurka egiten badu. Inork egiaztapen horren aurka egiten badu, egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

Erakundeek "Euskalit-Bikaintasunerako Euskal Fundazioak" emandako kudeaketa hobetzeko programetan (Kudeaketa Aurreratua) eta/edo "Neskatoa eta Kirola" programaren jardueretan parte hartu badute, ez da beharrezkoa izango inolako ziurtagiririk aurkeztea, Kultura eta Kirol Sailak, erakunde antolatzailea den aldetik, dokumentazio hori baitu.

7. artikulua. Aurkezteko epea

Aurreko puntuan aipatutako agiriak aurkezteko epea hamar egun baliiodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua. Balioespen irizpideak

Laguntzen zenbatekoak ezartzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

1. Talde bakoitzeko balioespena:

a) Modulu hauek aplikatuko dira, eskola kiroleko programan parte hartzearen arabera:

Kimu, haur eta kadete mailan parte hartzen duen kirolari bakoitzeko	21,00 euro
Kirol anitzeko jardueran parte hartzen duen kirolari bakoitzeko	62,00 euro

b) Teknikarien kirol titulazioaren zuzenketa indizea:

Aurreko apartatuko emaitza (parte hartzen duten kirolarien kopurua bider parte hartzen duen kirolari bakoitzeko prezioa) talde bakoitzeko, deialdi honen II. eranskinean jasotako titulazio taularen arabera, honako indize zuzentzaile honekin biderkatzen da:

LANGILEEN TITULAZIO MAILA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
1	1,00
2	1,05
3	1,10
4	1,18
5	1,21
6	1,25

Taldean teknikari bat baino gehiago badago, titulazio maila handiena duena hartuko da erreferentziatzat.

c) Teknikarien artean emakumeak izateagatik aplikatzekoa den zuzenketa indizea:

Aurreko apartatuetako emaitza (baliozkotutako kirolarien kopurua bider parte hartzen duen kirolari bakoitzeko prezioa bider prestakuntza langileen titulazioa) talde bakoitzeko, honako indize zuzentzaile honekin biderkatzen da:

Teknikarien artean emakumeak izateagatik	1,15
--	------

Taldean teknikari bat baino gehiago badago, titulazio maila handiena duena hartuko da indize hori aplikatzeko erreferentziatzat.

Talde bakoitzeko guztizko puntuazioa honako hauen batura izango da:

– Hauek biderkatzearen emaitza: kirolari kopurua eta 1.a) apartatuan zehaztutako kirolari bakoitzeko moduluaren balioa eta 1.b) apartatuan jasotako indize zuzentzailea eta 1.c) apartatuan jasotako indize zuzentzailea.

2. Erakunde bakoitzeko balioespena:

Erakunde bakoitzarentzako dirulaguntza kalkulatzeko, hura osatzen duten talde guztien kalkuluaren batura egingo da.

Erakundearen balioespenari zenbateko hauek gehitu ahal izango zaizkio:

a) Kirol erakundearen egoitza Vitoria-Gasteiz ez den beste udalerrri batean izateagatik:

Arabako Lurralde Historikoaren lurralde ezaugarri bereziak kontuan hartuta, eta egin behar dituzten aparteko gastuak ordaintzeko, honako taula honetan ezarritako faktore zuzentzailea aplikatuko zaie sozietatearen egoitza Vitoria-Gasteiz ez den beste udalerrri batean duten erakunde eskatzaileei:

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN EGOITZA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
Sozietatearen egoitza Vitoria-Gasteiz ez den beste udalerrri batean izatea	1,15

b) Erakundeen kudeaketa hobetzeko eta kirolean berdintasuna, euskara eta ekitatea sustatzeko konpromisoa.

Erakundeek beren egiturak hobetzeko eta berdintasunaren, euskararen eta ekitatearen aldeko politikak sustatzeko jarduketak gara ditzaten bultzatzeko premiaren ildotik, honako taula honetan ezarritako faktore zuzentzaileak aplikatuko dira, modu metagarrian:

EKINTZAK	FAKTORE ZUZENTZAILEA
1. Erakundeak Euskaliten "kudeaketa aurreratuko diploma" izatea bere egituraren funtzionamendua hobetzeko, eta diploma horren ziurtagiria indarrean izatea deialdi hau argitaratzen den egunean	1,15
2. Erakundeak berdintasun plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea	1,10
3. Erakundeak euskara plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea edo erakundearen euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat izatea (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari)	1,10
4. Erakundeak ekitate/inklusio plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea	1,10

2., 3. eta 4. tauletan aipatutako planen kasuan, kasuan kasuko faktore zuzentzailea aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

– Planek indarrean egon behar dute deialdi hau argitaratzen den egunean.

– Planak hainbat urterakoak izan behar dira.

– Planak jasotzen dituzten agiriak jatorrizkoak izan behar dira eta erakundearen banakako analisiaren emaitza.

– 2023an edo 2023-2024 denboraldian egindako ekintzak eta lortutako emaitzak jasotzen dituen memoria bat aurkeztu beharko da planarekin batera.

– Planen eremuak (berdintasuna, euskara, ekitatea/inklusioa) plan bakar batean sartu ahal izango dira, betiere ardatz berezia izanda. Kasu horretan, planean garatutako eremuen faktore zuzentzaileak metatuko dira.

Kirol federazioak modulu honen aplikaziotik kanpo geratzen dira, kontzeptu horrengatik diruz laguntzen baitira beste dirulaguntza deialdi baten barruan.

c) “Neskatoa eta kirola” programan parte hartzeagatik:

“Neskatoa eta kirola” programako jarduera guztietan parte hartu duten erakundeei, Arabako eskola kirolean genero berdintasuna sustatzeko esparruan, “egokitza” jo badira, honako modulu hau aplikatuko zaie:

“Neskatoa eta kirola” programa osoa garatzeagatik 2023-2024 ikasturtean	400,00 euro
---	-------------

d) Kirolean indarkeria prebenitzeko konpromisoagatik:

Prestakuntza hauetakoren bat egin eta gainditu duten erakundeei ondoko modulua aplikatuko zaie:

“Eskola kirolean indarkeria prebenitzea, diziplina anitzeko begirada (UHUN)” prestakuntza gainditzeko duen pertsona bakoitzeko, 2023-2024 ikasturtean Gehienez ere 500,00 euro jasoko dira erakunde bakoitzeko	100,00 euro
“Eskola kirolean indarkeria prebenitzea (Kirol Eskola)” prestakuntza gainditzeko duen pertsona bakoitzeko, 2023-2024 ikasturtean Gehienez ere 500,00 euro jasoko dira erakunde bakoitzeko	100,00 euro
Erakundeak proiektu bat egin eta gauzatu izana bere baitan, kirol lehiaketetan indarkeriari aurrea hartzeko eta kirol lehiaketetako kirol legea bultzatzeko	300,00 euro

Kontzeptu hori dela eta gehienez ere 1.000,00 euro jasoko dira erakunde bakoitzeko.

e) Desgaitasuna edo desgaitasun baten ondoriozko beste premia berezi batzuk dituzten ikasleei laguntzeko langileak edukitzeagatik, honako modulu hau aplikatuko da:

Talde bakoitzean, desgaitasun baten ondorioz hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen laguntzeko monitore bakoitzeko (taldearen titularrak ez den beste bat)	900,00 euro
--	-------------

f) Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak baimendu dituen eta “Kirol anitzeko B jarduerako” taldeentzako kirol anitzeko jarduerak (topaketak) antolatu dituzten erakundeei honako modulu hau aplikatuko zaie:

2023-2024 ikasturtean zehar antolatutako jardunaldi bakoitzeko	100,00 euro
--	-------------

Erakunde bakoitzarentzako dirulaguntza kalkulatzeko, hura osatzen duten talde guztien kalkuluaren eta erakundearen balioespenari buruzko aurreko apartatu guztien emaitzen batuketara egingo da.

Aurreko apartatuan ezarritako irizpidea aplikatu ondoren, dagokion proportzioan banatuko edo murriztuko dira erakunde guztien artean deialdi honen bigarren artikuluan adierazitako guztizko zenbatekora iritsi arte falta diren edo gainditzeko diren zenbatekoak.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko artikuluan honetan ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren 150,00 eurora iristen ez diren eskaerak.

9. artikulua. Organo eskudunak eta ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

2. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde hori eratzeko, kontuan hartuko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10. artikulua. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Batzordeburua: Kirol zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Bokalak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari, edo eskuordetutako dituzten pertsonak.
- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona; hitza izango du, baina botorik ez.

Deialdian ezarritako irizpideen arabera, Balioespen Batzordeak txostena egingo du, eta ebaluazioaren emaitza zehaztuko du han.

Ez da entzunaldiko izapiderik egingo, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak, balioespen batzordeak proposatuta, eman beharreko ebazpenak emango ditu gehienez ere lau hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakunde eskatzaileek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakundeei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan jasotzen dituen moduetan.

10. artikulua. Emandako dirulaguntzen ordainketa

Ebazpena onetsi ondoren ordainduko da dirulaguntza.

11. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jardueraren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu behar dira. Gainera, publizitate horretan hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabili behar dira, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabea bermatu.

12. artikulua. Komunikazioaren arloko betebeharrak

Herritarrei diruz lagundutako jardueraren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu behar dira. Gainera, publizitate horretan hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabili behar dira, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabea bermatu.

13. artikulua. Araudia

Honako hauek arautuko dute deialdi hau:

- 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituena; eta haren ondoko aldaketak.

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2023 Foru Arau Orokorra, urtarrilaren 25ekoa, Dirulaguntzena.
- Ekitaldi honetarako indarrean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta aplikatzekoa den gainerako araudia.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duena.
- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana (2022-2026).

II. eranskina

MAILA	TITULAZIOAK
1	<ul style="list-style-type: none"> • Titulaziorik gabe
2	<ul style="list-style-type: none"> • Kirolarekin zer ikusirik ez duten lizentziak/graduak eta diplomak • Aisialdiko hezkuntza jardueren monitorea • Monitorea, 0 maila • Eskola kiroleko monitorea/Eskola kiroleko monitore laguntzailea • UEFA C Diploma
3	<ul style="list-style-type: none"> • Pedagogia, Psikologia eta Gizarte Hezkuntzako lizentzia/gradua • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduak 1. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaindituta eduki behar dira • Lehen Hezkuntzako graduak 1., 2. edo 3. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaindituta eduki behar dira • LH Ilko Gizarte eta Kultura Animazioa eta aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendaria • Natura Inguruneko Gorputz eta Kirol Jardueren Gidaritzako erdi mailako gradua • Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionaltasun ziurtagiriak
4	<ul style="list-style-type: none"> • Probintziako monitorea edo entrenatzailea, I. maila/graduak entrenatzailea, kirol teknikariaren I. maila edo hasierako zikloa • Irakasle Ikasketen diploma/Lehen Hezkuntzako gradua • Lehen Hezkuntzako graduak 4. ikasturtean matrikulaturik egotea (Gorputz Hezkuntzako espezialitatea/aipamena) • Gorputz eta Kirol Ekintzen Animazioko goi mailako gradua • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduak 2. ikasturtea. Ikasgai guztiak gaindituta eduki behar dira • UEFA B Diploma
5	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualdeko entrenatzailea, II. mailako/graduak entrenatzailea, kirol teknikaria (II. maila) • Irakasle Ikasketen diploma/Lehen Hezkuntzako gradua (Gorputz Hezkuntzako espezialitatea/aipamena) • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduak 3. eta 4. ikasturteetan matrikulatuta egotea • UEFA A Diploma
6	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuko entrenatzailea, III. mailako/graduak entrenatzailea eta goi mailako kirol teknikaria • Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentzia/gradua • UEFA PRO

Titulazio indizea ez da metagarria izango, eta puntu gehien dituen titulazioa bakarrik balioetsiko da. Aurreko kanpainetan aurkeztutako tituluak ere balioetsiko dira.